

AJA 2025-26

ZIRRIBORROA

ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. ANTIGUA-LUBERRI Bigarren Hezkuntzako Ikastetxearen izendapena, irakaskuntzak eta ezaugarriak

1. ANTIGUA-LUBERRI BHI ikastetxe publikoa da. Bertan, honako hauek ematen dira: Gela Egonkorra, Zeregin Ikaskuntzarako Gela, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa. Ikastetxea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dago. Ikastetxe honek, hartara, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako planeamenduari jarraiki ematen ditu, ikasturtez ikasturte, bere ikasketak.
2. ANTIGUA-LUBERRI BHIk bere egin ditu 17/2023 LEGEAK, Euskal Autonomi Erkidegoko Hezkuntzarenak, bere I. Tituluko II. Kapituluako 3., 4., 5., 6., 7. eta 8., artikuluetan ezartzen dituen printzipio, helburu eta balioak. Ikastetxe horretako gobernu-organo, partaidetza-organo eta koordinazio didaktikorako organo guztiek, irakasleek eta irakasleak ez diren ikastetxeko langile guztiek goian aipaturiko helburuak betetzera bideratuko dute beren jarduna.
3. ANTIGUA-LUBERRI BHIk, ikastetxeko bizikidetzaren oinarri gisa, bere eskubideak arduraz bete eta gainerakoen eskubideak errespetatuko dituela agintzen du.

I. TITULUA. ANTIGUA-LUBERRI BHIko ANTOLAMENDUA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

2. artikulua. Aginte organoak

1. ANTIGUA-LUBERRI BHIk 2023ko Hezkuntza Legean aurreikusi diren aginte-organo hauek izango ditu, ezarritako eskumenekin eta eskuduntzekin:
 1. Kide anitzeko organoak:
 - a) Eskola Kontseilua.
 - b) Irakasleen klaustroa.
 - c) Zuzendaritza-taldea.
 2. Kide bakarreko organoak:
 - a) Zuzendaria.
 - b) Ikasketaburua.
 - c) Idazkaria.
2. 2023ko Hezkuntza Legearen 38.3. artikuluan aintzatetsi dion autonomia aske egikaritzeko, arestian aipatutakoez gain, mintzagai dugun ikastetxeak organo hauek izango ditu.
 1. Kide bakarreko organoak:
 - a) Zuzendariordea.
 - b) Ikasketaburu ondokoa.

3. artikulua. Hezkuntza komunitatearen partaidetza

1. Eskola kontseiluaren bidez, ikasleek, ikasleen gurasoek, irakasleek, hezkuntza-arretako profesionalak, administrazioko eta zerbitzuetako langileek eta Udalak ANTIGUA-LUBERRI BHIren kudeaketan parte har dezakete.
2. Gurasoen batzarrak eta ikasleen parte hartze-organoek ikastetxearen kudeaketan parte hartuko dute.
3. ANTIGUA-LUBERRI BHI ikasle- nahiz guraso-elkarteen egoitza izango da. Ikastetxeak lokalak utziko dizkie elkarte horiei haien jarduera gauzatu dezaten. Horrez gain, ikastetxeak elkarteek ikastetxearen bizitzan parte hartzea sustatuko du. Horretarako, hezkuntza-jarduerak, jarduera kulturalak eta kirol-jarduerak bultzatuko ditu.

4. artikulua. Koordinazio didaktikorako organoak

1. Tutoretzak eta taldeko, etapako nahiz zikloko irakasle taldeak ANTIGUA-LUBERRI BHIko koordinazio didaktikorako organoak izango dira. Aipatu berri ditugun bi organo horiek, klaustroaren, Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen, didaktika-departamentuen eta orientazio-departamentuaren zuzendaritzapean egongo dira.

5. artikulua. Aginte-organoen, partaidetza-organoen eta koordinazio didaktikorako organoen jardunaren oinarriak

1. Ikastetxeko aginte-organoek, partaidetza-organoek eta koordinazio didaktikorako organoek zainduko dute ikastetxeko jarduerak Hezkuntza Legean jaso diren printzipio eta balioei jarraiki gauzaten direla. Aipatu berri ditugun organoek, halaber, Hezkuntza Legean

nahiz indarrean dauden xedapenetan ezarri diren hezkuntzako xedeak egoki betetzen direla zainduko dute, baita hezkuntzaren kalitatea ere.

2. Horrez gain, aginte-organoek, partaidetza-organoek eta koordinazio didaktikorako organoek bermatuko dute, bakoitza bere eskumen-esparruan, ikasleen, irakasleen, gurasoen eta administrazioari nahiz zerbitzuari langileen eskubideak betetzen direla. Era berean, organo horiek guztiek aipatu berri ditugun eragileek beren betebeharrak betetzen dituzten ikuskatuko dute.
3. Mintzagai ditugun organoek, bestetik, beren gain hartuko dute hezkuntza-komunitateko kide guztiek ikastetxeko bizitzan, ikastetxearen kudeaketan eta ikastetxearen ebaluazioan eraginkortasunez parte hartuko dutela bermatzeko ardura.

II. KAPITULUA. TALDEKO AGINTE-ORGANOAK

I. ATALA. ANTIGUA-LUBERRI BHiko ESKOLA KONTSEILUA

6. artikulua. ANTIGUA-LUBERRI BHiko eskola kontseiluko ezaugarriak eta osaera

1. ANTIGUA-LUBERRI BHiko Ordezkarien Organo Gorena eskola-komunitateak ikastetxearen gobernuan parte hartzeko organoa da. Organo horrek "Eskola Kontseilua" izena hartuko du.
2. ANTIGUA-LUBERRI BHiko Eskola Kontseilua Hezkuntza Legeko 45.2. artikuluan aitor zaizkion eskumenak ditu.
 - a) Hezkuntza-proiektua eta haren aldaketak onartzea, kideen hiru bosteneko gehiengoz.
 - b) Ikastetxearen urteko plana eta memoria onartzea, eta haren garapena eta emaitzak ebaluatzea.
 - c) Halakorik badago, programa-kontratu, hitzarmen eta ikastetxeak entitate edo instituzioekin adostutako bestelako lankidetzak-akordioen proposamenak onartzea.
 - d) Hezkuntza-komunitateak parte hartzeko arauak eta arau horien aldaketak ezartzen dituen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudia onartzea, zuzendaritzaren proposamenez eta ekimenez.
 - e) Ikastetxeko zuzendaritzak proposatuta, ikastetxeari aplikatu beharreko programa-kontratu onartzea, halakorik badago.
 - f) Ikastetxearen aurrekontua onartzea eta hura betetzeari buruzko kontuak ematea.
 - g) Gatazkak konpontzen esku hartzea eta, beharrezkoa bada, hartutako hezkuntza-, bitartekotza- eta zuzenketak-neurriak berrikustea, indarrean dagoen araudiarekin bat datozela zainduz.
 - h) Eskola-jardura osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak programatzeko jarraibideak onartzea, eta haien garapena ebaluatzea.
 - i) Ikastetxearen funtzionamendu orokorraren azterketetan eta ebaluazioetan parte hartzea, eta eskola-errendimenduaren bilakaera ezagutzea.
 - j) Beste ikastetxe batzuekin eta inguruko entitate publiko zein pribatuekin lankidetzan aritzeko irizpideak onartzea.

3. ANTIGUA-LUBERRI BHIko Eskola Kontseilua ondoko hauek osatuko dute:
 - a) Zuzendariak.
 - b) Ikasketaburuek.
 - c) Idazkariak, hitz egiteko eskubidez eta botorik gabe.
 - d) Irakasle klaustroak hautaturiko hamaika irakaslek.
 - e) Gurasoek hautaturiko bederatzi gurasok.
 - f) Ikasleek hautaturiko bederatzi ikaslek.
 - g) Ikastetxea kokatua dagoen udaleko ordezkari batek.
 - h) Administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren ordezkari batek.
 - i) Hezkuntza-arreta osagarria emateko pertsonalaren ordezkari batek.
 - j) Legeak edo beste arau batzuek edo ikastetxearen antolakuntza eta jarduera araudiak emandako beste edozein aginpide.
4. Eskola Kontseiluko kideek beren ordezkaritzan lanean ez dute nahitaezko mandaturik izango. Ordezkatuei informazioa nola eman alor bakoitzeko ordezkarien esku dago.
5. Eskola Kontseilua ikasturtean zehar gutxienez hiru alditan bilduko da: ikasturtearen hasieran urteko plana eztabaidatu eta onartzeko; bigarren hiruhilekoan, beharrezko jarraipena egiteko; eta ikasturtearen bukaeran, urteko memoria aztertu eta onartzeko, eta kurtsoren ebaluazioa egiteko. Horretaz gain, batzorde iraunkorrak erabakitzen duen guztietan eta Eskola Kontseiluko kideen heren batek eskatzen duenean ere bilduko da, baita zuzendariak deitzen duenean ere.
6. Zuzendariak luzatuko du Eskola Kontseilua biltzeko deialdia, data, ordua eta gai-zerrenda zehaztuta. Gai-zerrendatik kanpo dauden gaiak ere eztabaidatzeko aukera izango da, baina ezin izango dira aparteko gai horiei buruzko erabakiak hartu.
7. EKak edo bertan sorturiko edozein batzordek aztertu beharreko dokumentuek kideen esku egon behar dute saioa aurretik. Eskola Kontseiluko kideek urteko planaren eta urteko memoriaren proposamena, onartu baino gutxienez aste bete lehenago jasoko dituzte.
8. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrari aplikatu dakizkiokeen kide anitzeko organoen arauak aplikatuko zaizkie titulartasun publikoko ikastetxeei.

7. artikulua. Eskola Kontseilua hautestea eta berritzea

1. Bi urtetan behin, Eskola Kontseiluko kideen erdiak berrituko dira. Berritze hori txandaka gauzatuko da, halaxe ezarri baita Eskola Kontseiluak arautzen dituen Dekretuan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratu dituen deialdietan.

8. artikulua. Presidentea eta idazkaria aldatzea

1. Zuzendaria kanpoan bada, zuzendariordea izango da ikastetxeko buru. Ikastetxean zuzendariorderik ez badago, ikastetxeko zuzendari ikasketaburua izango da edo, hala badagokio, antzinasunik handien duen ikastetxeko Eskola Kontseiluko irakaslea.
2. Idazkari albokoa egon ezean, ikastetxeko Eskola Kontseiluko irakasle berrienak hartuko du idazkariaren lekua. Pertsona horrek, irakasle den aldetik, botoa emateko eskubidea izaten jarraituko du.

9. artikulua. Eskola kontseiluko funtzionamendu-erregimena

1. Eskola Kontseiluaren bilerak kide guztiak bertaratu ahal diren orduan eta egunean egingo dira. Zuzendariak edo idazkariak bileraren deialdia bidaliko die Eskola Kontseiluko kideei. Deialdiarekin batera, honako hauek helaraziko dizkie: bileraren gai-zerrenda; eztabaidagai izango diren dokumentuak. Kideek, bilera egin baino astebete lehenago jasoko dituzte agiri horiek guztiak.
2. Ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, 48 orduz aitzin dei egiten badira. Hala gerta daiteke, premiaz landu behar den auzirik badago.
3. Eskola Kontseilua, gutxienez, hiruhilekoan behin bilduko da zuzendariak, Eskola Kontseiluko kideen heren batek edo Batzorde Iraunkorrak eskatuta. Edonola ere, ikasturtearen hasieran eta amaieran bilera bana egin beharko ditu nahitaez. Eskola Kontseiluko kide guztiak derrigor joan beharko dute Eskola Kontseiluaren bileretara.
4. Eskola Kontseiluak gehiengo soilez hartuko ditu akordioak, kasu hauetan izan ezik:
 - a) Hezkuntza-proiektua, urteko plana eta AJA nahiz AJAren aldaketak onetsi behar direnean. Horiek guztiak gehiengo osoz onartuko dira.
 - b) Zuzendaria berriz izendatzeko edo ezeztatze proposamena onetsi behar denean. Proposamen hori bi hereneko gehiengoaz onetsiko da.
5. Erregelamendu honetan eta hezkuntzako legeetan aurreikusi ez diren Eskola Kontseiluari buruzko auziak ebazteko, administrazio-jardunbidearen Legeko II. tituluko 2. kapituluan ezarritakoa beteko da.

10. artikulua. Eskola Kontseiluko batzordeak

1. Eskola Kontseiluak **Batzorde Iraunkorra** izango du.
 - a) Osaketa:
 1. Zuzendaria
 2. Ikasketaburu 1
 3. Idazkaria (bozka eskubiderik gabe)
 4. Irakasle 1
 5. Ikasle 1
 6. Guraso 1
 - b) Funtzioak:
 1. Behar edo urgentzi baten aurrean Eskola kontseiluaren zereginak bere gain hartzea, beharrezko erabakiak hartu eta jakinaraztea.
 2. Gaiaren garrantziaren arabera, eskola komunitatearen iritzia ezagutu ahal izateko, Zuzendaritza taldearen kontsulta organo gisa aritzea.
 3. Eskola kontseiluak agindutako funtzioak eta eginkizunak betetzea.
 - c) Erabakiak:
 1. Erabakiak aho batez hartzea lehenetsiko da. Horrela izatea posible ez denean, haztatutako bozka erabiliz bozkatuko da. Erabaki bat onartzeko gehiengo osoa eduki beharko da.
2. Aipatu berri dugun batzordeaz gain, **Ekonomia Batzordea** ere sortuko da. Bere egitekoa: agintzen zaizkion auziei buruz Eskola Kontseiluari informazio ekonomikoa ematea.
 - a) Osaketa:
 1. Zuzendaria

2. Ikasketaburu 1
 3. Idazkaria (bozka eskubiderik gabe)
 4. Irakasle 1
 5. Ikasle 1
 6. Guraso 1
3. Eskola Kontseiluak auzi zehatzez arduratuko diren batzordeak sor ditzake. Batzorde horiek sortzeko erabakian haien esku utzi diren eskumenak izango dituzte eta erabakian ezarri bezala sortuko dira. Sortzen diren batzorde guztiek –artikulu honetako aurreko paragrafoetan zehaztu direnak barne– azterketak, txostenak eta proposamenak egin ditzakete beren eskumeneoak diren gaietara buruz.

II. ATALA. IRAKASLEEN KLAUSTROA

11. artikulua. Irakasleen Klaustroaren ezaugarriak eta osaera

1. Irakasleen klaustroa irakasleek parte hartzeko organoa da, bai hezkuntza-jardueren antolamenduaren kontrolean eta kudeaketan parte hartzeko, bai ikastetxearekin loturiko hezkuntza-alderdi guztietan parte hartzeko.
2. Klaustroak zuzendaria izango du buru eta ikastetxean irakasle aritzen diren guztiek osatuko dute. ANTIGUA-LUBERRI BHIko idazkaria klaustroko idazkari izango da ere.
3. Zuzendaririk egon ezean, zuzendariordea edo ikasketaburuetako bat izango da klaustroko buru. Eta zuzendaririk, zuzendariorderik nahiz ikasketabururik ez badago, antzinasun handiena duen irakaslea izango da klaustroko buru. Idazkaririk edo idazkari albokoa egon ezean, aitzitik, irakasleetan berrienak beteko ditu idazkariaren funtzioak.

12. artikulua. Klaustroaren funtzionamendu-erregimena

1. Klaustroa hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez, zuzendariak deialdia eginda edo klaustroa osatzen duten kideen gutxienez heren batek hala eskatzen badu.
2. Klaustroko kide guztiek derrigor joan beharko dute klaustroaren bileretara.
3. Ohiko bileretarako deia bilera baino astebete lehenago egingo da gutxienez. Salbuespen moduan, ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, 48 orduko aurrerapenez egiten badira. Hala egin daiteke premiaz landu behar den auziren bat badago.
4. Erregelamendu honetan eta hezkuntzako legeetan aurreikusi ez diren auziak ebazteko, Herri Administrazioen Araubidean eta Administrazioako Prozedura Erkidearen Legeko II. tituluko 2. kapituluan ezarritakoari jarraituko dio klaustroak.

13. artikulua. Klaustroaren eginkizunak

1. Hezkuntza Legeak 43.3. artikuluan zehazten ditu klaustroaren eginkizunak.
 - a) Parte hartzea hezkuntza-proiektua egiten eta aldatzen.
 - b) Irakasleak koordinatzeko eta tutoretzak antolatzekeo jarraibideak ezartzea.
 - c) Ikasleak ebaluatzekeo irizpideak erabakitzea.
 - d) Ikastetxearen hezkuntza-jarduerak programatzea eta haien garapena eta emaitzak ebaluatzea.
 - e) Eskola-kontseiluan irakasleak ordezkatzeko dituztenak aukeratzea.

- f) Zuzendaritza-taldeari laguntza ematea ikastetxearen urteko plana betetzen.
- g) Ikastetxearen antolakuntza- eta funtzionamendu-arauek esleitzen dizkietenak, indarrean dagoen ordenamenduaren esparruan.
- h) Proposamenak egitea, irakaskuntza-metodologiari, irakasleen prestakuntzaren eta antolamenduaren digitalizazioa egokitu dadin aurrez ezarritako tresna digitalen integrazio pedagogikorako esparrura.
- i) Irizpideak lantzea eta ezartzea irakaskuntza partekatuko ekimenak ordutegi eta ikasgela beretan koordinatzeko, irakaskuntza presentzialaren edo espazio birtualen bidez, bai eta izaera hori duten proiektuak edo beste edozein irakaskuntza-ekimen gauzatzean ere.
- j) Prestakuntza jarraituko programak eta irakasleak irakaskuntza-metodologia berrietara edo hezkuntzaren arloko edozein berrikuntzatarako egokitzeko programak proposatzea.
- k) Lege- edo erregelamendu-arauek esleitzen dioten beste edozein eginkizun.

III. ATALA. ZUZENDARITZA TALDEA

14. artikulua. Zuzendaritza taldea

1. 29/2023 dekretuak eta Hezkuntza Legearen 40.3. artikulua dioenez, zuzendaritza-taldea honako hauek osatuko dute, gutxienez:
 - a) Zuzendariak
 - b) Ikasketaburuek.
 - c) Idazkariak.
 - d) Zuzendariordeak.
 - e) Idazkari albokoak (Berrikuntza arduraduna).
2. Hezkuntza Legearen 40. artikulua dioenez, zuzendaritza-taldea ikastetxe publikoetako gobernu-organo exekutiboa da, zuzendariaren koordinaziopean eta gidaritzapean funtzio hauek betetzen dituen organoa:
 - a) Zuzendaritzak eskuordetzan ematen dizkion edo ikastetxearen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudian berariaz aitortzen zaizkion ikastetxeko gobernu-eginkizun exekutiboak betetzen ditu.
 - b) Hezkuntza- eta pedagogia-eredua definitzen eta aplikatzen laguntzen du.
 - c) Ikastetxearen plangintza estrategikoa eta operatiboa bultzatzen du.
 - d) Parte hartzeko gainerako kide anitzeko organoen aurrean erantzuten du eta kontuak ematen ditu.
 - e) Zuzendaritza-taldeko kideak zuzendaritza-proiektua kudeatzeko arduradun kolegiatuak dira.
3. Zuzendaritza taldeak, egoki baderitzo, hezkuntza-komunitateko zeinahi kide gonbidatu dezake bere bileretara aholkuak eman ditzan. Era berean, egoki deritzon funtzioak ikastetxeko irakasleen esku utzi ditzake, batez ere, zikloko edo etapako koordinatzaileen esku edota proiektu zehatzez arduratzen diren irakasleen esku.
4. Hezkuntza Legearen 40.10. artikulua dioenez, zuzendaritza-taldeak beti errespetatu beharko du ikastetxeak onartzen duen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudia, bai eta, halakorik badago, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak oro har onartzen duen etika-

edo jokabide-kodea ere, titulartasun publikoko ikastetxeetako zuzendaritza-organoetako kideei aplikatzekoa.

5. Hezkuntza Legearen 41. artikulua dionez, ikastetxeko zuzendaritza hautatzeko prozedura berariazko merezimendu-lehiaketa baten bidez egingo da, ikastetxeari esleitutako ikasketaren bat ematen duten karrerako irakasle funtzionarioen artean. Hezkuntza-komunitateak eta Hezkuntza Administrazioak parte hartuko dute hautaketa-prozesuan. Ikastetxeko zuzendaritza hautatzeko prozedura berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen araberrakoa izango da, eta publizitate- eta gardentasun-printzipioetan oinarrituko da.

III. KAPITULUA. PERTSONA BAKARREKO AGINTE-ORGANOAK

15. artikulua. Zuzendaria

1. Zuzendaria da ikastetxearen ordezkartza instituzionala, lidergoa eta erantzukizun exekutibo gorena gauzatzen dituen pertsona bakarreko organoa.
2. Zuzendariak Hezkuntza Legeko 39. eta 29/2023 dekretuko 3. artikuluetan ezarri diren funtzioak ditu.
3. Aurreko puntuan aipatu funtzioak zuzendaritzako beste kideen artean banatuko dira.

15 bis. artikulua. Zuzendariordea

1. Zuzendariordea zuzendariaren ordezkoa izango da hau falta denean. Horrez gain, laguntza estrategikoa emango dio.
2. Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak koordinatzeaz arduratuko da eta zerbitzu osagarriak (garraioa, jangela...) gainbegiratuko ditu.
3. Zuzendaritzak esleitzen dizkion bestelako funtzioak ere beteko ditu.

16. artikulua. Ikasketaburuak

1. Ikasketaburuak ikasketen eta plangintzaren arduradunak dira.
2. Departamentu buruen, tutoreen eta irakasleen jarduna koordinatuko dute.
3. Ebaluazio eta orientabide-prozesuak koordinatuko dituzte.
4. Diziiplina eta elkarbizitza-arazoetan esku hartuko dute.
5. Zuzendaritzak esleitzen dizkion bestelako funtzioak ere beteko ditu.

17. artikulua. Idazkaria

1. Kudeaketa administratiboa eta ekonomikoaren arduraduna da.
2. Bileren deialdiak egingo ditu, baita hauen aktak jaso eta artxibatu ere.
3. Ikastetxeko dokumentu ofizialak kudeatuko ditu.
4. Baliabide materialen ardura du.
5. Ikastetxean aritzen diren administrazioeko eta zerbitzuetako langileen buru izango da.
6. Zuzendaritzak esleitzen dizkion bestelako funtzioak ere beteko ditu.

17 bis. artikulua. Idazkari albokoa (Berrikuntza arduraduna - BeA)

1. Idazkari albokoa idazkariaren ordezkoa izango da hau falta denean.
2. Berrikuntza arduradunaren deskribapena eta funtzioak *Ikastetxe Publikoetan Hezkuntza Berritzeko Jarduera-Esparrua: Bea Figurak (2025-2028)* dokumentuan jasoak daude.
3. BeA figuraren eginkizun nagusia da ikastetxeetan ikaskuntza hobetzeko eta berritzeko prozesuak sustatzea, dinamizatzea eta koordinatzea, inklusioaren, ekitatearen eta lankidetzaren ikuspegitik. Ikasleen hezkuntza-emaitzak hobetzera eta lan partekatuan, hausnarketa pedagogikoan eta kalitatezko hezkuntzarako eskubidearekiko konpromisoan oinarritutako kultura profesionala garatzera bideratu behar da haien jarduna.
4. Zuzendaritzak esleitzen dizkion bestelako funtzioak ere beteko ditu.

18. artikulua. Pertsona bakarreko aginte-organismoak izendatzea eta kargua uztea

1. Hezkuntza Legearen 40.7. eta 8. artikulua adierazten du Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailaren eskumena dela zuzendaritza-taldeko kideak izendatzea eta kargutik kentzea, ikastetxeko zuzendaritzak proposatuta, irakasleen klaustroari eta eskola-kontseiluari entzun ondoren. Ikastetxeko zuzendaritzari dagokio irakasleen klaustroko beste kide batzuei eginkizunak esleitzea edo eskuordetzea, eta esleitutako edo eskuordetutako eginkizun horiek baliogabetzea. Nolanahi ere, ikastetxeko zuzendaritza-taldeko kideek beren eginkizunak utziko dituzte agintaldia amaitzen dutenean edo zuzendariak kargua uzten duenean. Hala ere, beren eginkizunak betetzen jarraituko dute behin-behinean, zuzendari berria eta haren zuzendaritza-taldea izendatu arte.
2. Hezkuntza Legearen 40.9. artikulua dionez, zuzendaritza-taldeko kideek, halaber, ikastetxeko zuzendaritzaren aurrean erantzungo dute esleituta edo eskuordetuta dituzten eskumenen kudeaketa-emaitzei dagokienez. Ikastetxeko zuzendaritzak, agintaldiaren hasieran, kudeaketa-akordio bat sinatu ahal izango du zuzendaritza-taldeko kideekin, bete beharreko helburuak eta betetze-maila ebaluatzeko kudeaketa-adierazleak ezartzeko. Helburu horiek ez betetzeak zuzendaritza-taldeko kidea kargutik kentzea ekarriko du, salbu eta ezinbesteko kasurik edo helburuok betetzea eragozten duen kanpoko arrazoirik baldin badago.

19. artikulua. Zuzendaritza taldeko kideak ordezkatzeko

1. Zuzendaria kanpoan bada edo gaixo badago, zuzendariordeak beteko ditu haren funtzioak behin-behinekoz.
2. Zuzendariordea kanpoan bada edo gaixo badago, ikasketaburuak edo ikasketaburu ondokoak beteko ditu haren funtzioak behin-behinekoz.
3. Ikasketaburuak kanpoan badaude edo gaixo badaude, zuzendariak agintzen duen irakasleak beteko ditu haren funtzioak behin-behinean. Zuzendariak bere erabakiaren berri emango dio Eskola Kontseiluari.
4. Era berean, idazkaria kanpoan bada edo gaixo badago, eta ikastetxean idazkariorderik ez badago, zuzendariak izendatu duen irakasleak beteko ditu idazkariaren funtzioak. Zuzendariak gertakariaren berri eman behako dio Eskola Kontseiluari.

5. Zuzendaria kanpoan bada edo gaixo badago, zuzendariordea edo ikasketaburuak jarduneko zuzendari izango dira. Jarduneko zuzendariaren eskumen berak izango ditu, baita artikulua honetako 2., 3. eta 4. paragrafoetan jaso direnak ere.

IV. KAPITULUA. IRAKASKUNTZA KOORDINATZEKO ORGANOAK

20. artikulua. ANTIGUA-LUBERRI BHIko koordinazio-organoak

1. ANTIGUA-LUBERRI BHIko irakaskuntzaren koordinazio-organo hauek egongo dira:
 - a) Orientazio-departamentua edo mintegia.
 - b) Didaktika-departamentuak edo mintegiak.
 - c) Koordinazio Pedagogikorako Batzordea edo Batzorde pedagogikoa.
 - d) Tutoreak.
 - e) Taldeko, zikloko edota etapako irakasle taldeak.

I. ATALA. ORIENTAZIO-DEPARTAMENTUA

21. artikulua. Orientazio-departamentuaren osaera

1. Orientazio-departamentua ikasturtearen antolaketarako ebazpenean zehazten da.

22. artikulua. Orientazio-departamentuaren funtzioak

1. Orientazio-departamentuaren funtzioak ikasturtearen antolaketarako ebazpenean zehazten dira.

23. artikulua. Orientazio-departamentuko burua izendatzea

1. Zuzendariak urtero izendatuko du Orientazio-departamentuko burua. Horretarako, psikologian eta pedagogian espezializatutako irakasleen artean bat hautatuko du. Aukeraketa egiteko, Departamentuko kideen iritzia kontuan hartuko du eta kategoria akademikoaren nahiz espezialitatearen irizpideak errespetatuko ditu.
2. Zuzendari-karguren bat dutenak ezin izango dira departamentuko buru izan, ezta departamentuaz goragoko kategoria akademikoren bateko kargudun izanda ere.
3. Departamentuko buruak departamentuaren jarduerak zuzendu eta koordinatuko ditu. Horrez gain, departamentuaren bilerak deituko ditu eta bileren buru izango da. Orientazio-departamentuko buruak, azkenik, departamentuak bere funtzio guztiak betetzen dituela bermatuko du.

II. ATALA. DIDAKTIKA-DEPARTAMENTUAK

24. artikulua. Didaktika-departamentuen ezaugarriak eta osaera

1. Didaktika-departamentuak arloen, irakasgaien eta moduluen irakaskuntza antolatzeaz eta garatzeaz arduratzen diren organoak dira. Mintegiburuaren zuzendaritzapean, departamentuek arlo edo irakasgai bera ematen duten irakasleak koordinatuko dituzte,

- baita antzeko arloak edo irakasgaiak ematen dituzten irakasleak ere. Departamentuko kide guztiek eragin zuzena dute taldeen egitekoaren nahiz taldeak gauzatzen duen lanaren gain.
2. Irakasle guztiak astean ordubetez bildu beharko dira departamentuaren ohiko bilerak egiteko. Aipatu berri duguna bazter utzi gabe, departamentuko kide guztiak bildu beharko dira departamentu-buruak egoki baderitzo edo departamentuko kideen heren batek hala eskatzen badu.
 3. Irakasleek zer didaktika-departamentutan egon behar duten zehazteko, kontuan hartuko da asteko beren ordutegiko ordurik gehien zer alor, irakasgai edo moduluri ematen igarotzen duten. Irakasle batek bi didaktika-departamenturi edo gehiagori dagozkion ikasgaien eskolak ematen baditu, ordu gehiago ematen ditueneko ikasgaiaren departamentura atxikiko da; hala ere, berak irakasten dituen gainerako ikasgaien departamentuen bileretara bertaratu ahal izango da, baita bertan egiten diren lanetan eta hartzen diren erabakietan parte hartu ere.
 4. Modulua, arloak edo irakasgaiak departamenturen batera atxikirik ez badaude, edo hainbat departamentutako irakasleek eman baditzakete eta, bestetik, indarreko arauak ez badute ezartzen zer departamentutara atxiki, ikastetxeko zuzendariak –Koordinazio Pedagogikorako Batzordeak hala proposatzen badiotik– arestian aipatutako irakaskuntzak departamentu batera atxikiko ditu. Didaktika departamentuak, departamentu-buruaren zuzendaritzapean, hurrengo artikuluan aipatzen diren jardura guztiak egin eta auzi guztiak ebatzi beharko ditu, betiere, goian aipatutako moduluen, arloen eta irakasgaien inguruan suertatzen direnak.

25. artikulua. Didaktika-departamentuen eta departamentu-buruaren funtzioak eta eskumenak

1. Ikasturtearen antolamenduari buruz Hezkuntza Sailburuordeak ematen duen ebazpenean nahiz indarrean dauden gainerako arauetan hainbat ataza ezarri zaizkie didaktika-departamentuei nahiz departamentu-buruei. Didaktika-departamentuek eta departamentu-buruek, beraz, beren gain hartuko dituzte urtero ezarri zaizkien atazak.
2. Departamentuko irakasle bat falta denean, departamentuak irakasle horren taldeen ardura hartuko du bere ordezkia etorri arte.
 - a) Irakasleek zereginik gabe egongo ez direla bermatuko du.
 - b) Irakasle horren taldeek, mailako beste taldeekiko atzerapenik ez izateaz arduratuko da lana departamentuko kideen artean banatuz.
3. Falta diren departamentuko irakasleen ordezkien harrera antolatuta egon beharko da, lanerako beharko dituzten azalpenak eta baliabideak emateko.

26. artikulua. ANTIGUA-LUBERRIko didaktika-departamentuen kopurua eta izena

1. Ikasturtearen antolamenduari buruz Hezkuntzako Sailburuordeak argitaratzen duen ebazpenetan oinarrituz, ANTIGUA-LUBERRI BHIin zein didaktika-departamentu egongo diren *Eranskin 2an* jasotzen da.

27. artikulua. Didaktika-departamentuetako buruak izendatzea

1. Zuzendariak didaktika-departamentuetako buruak hautatuko ditu urtero ikastetxeko irakasleen artean. Buruak hautatu aurretik, zuzendariak entzunaldia egin beharko die.

- Zuzendariak, halaber, kategoria akademikoaren nahiz espezialitatearen irizpideak errespetatuko ditu beti.
2. Zuzendari-karguren bat dutenak ezin izango dira departamentuko buru izan, ezta departamentuaz goragoko kategoria akademikoren bateko kargudunak badira ere.
 3. Departamentuko buruak departamentuaren jarduerak zuzendu eta koordinatuko ditu. Horrez gain, departamentuaren bilerak deituko ditu eta bileren buru izango da. Azkenik, departamentuak bere funtzio guztiak betetzen dituela bermatuko du departamentu-buruak.

III. ATALA. KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEA

28. artikulua. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen osaera

1. ANTIGUA-LUBERRI BHI In Batzorde pedagogiko edo Koordinazio Pedagogikorako Batzorde bat egongo da. Zuzendariak, ikasketaburuak, berrikuntza arduradunak eta departamentu-buruak osatuko dute.

29. artikulua. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen eskumenak

1. Koordinazio Pedagogikorako Batzordea irakasleen klaustroko batzordea da. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen funtzio nagusia curriculum-proiektua eta proiektuari egin dakizkiokeen aldaketak koordinatzea izango da.
2. Egiteko hori betetzeko jarraian aipatuko ditugun eskumenak izango ditu, betiere, irakasleen klaustroaren zainzapean egonik:
 - a) Etapako curriculum-proiektuak lantzeko eta berrikusteko zuzentarau orokorrak ezartzea.
 - b) Etapako curriculum-proiektuak nahiz berorien zuzenketak lantzeko eta berrikusteko prozesua ikuskatzea. Etapako curriculum-proiektuak nahiz berorien zuzenketak koordinatzea eta beroriek idaztea. Etapako curriculum-proiektuak ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekin bat datozela ziurtatzea.
 - c) Departamentuen, ikasleen orientazio akademikoari nahiz profesionalari buruzko planaren zein tutore-ekintzarako planaren programazio didaktikoak lantzeko eta aztertze irizpide orokorrak finkatzea.
 - d) Klaustroari curriculum-proiektuak proposatzea, onar ditzan.
 - e) Etapako curriculum-proiektuak betetzen direla zainzea eta ebaluatzea.
 - f) Klaustroari ebaluazio- eta kalifikazio-bilkuren plangintza orokorra proposatzea, baita azterketak edo aparteko probak egiteko egutegia ere, ikasketaburuak dioenaren arabera.
 - g) Irakasleen klaustroari planak proposatzea ondoko hauek ebaluatu ditzan: etapa bakoitzeko curriculum-proiektua, hezkuntza-proiektuaren irakaskuntza, urteko programazio orokorra, ikastetxean eskola-errendimenduak izan duen eboluzioa eta irakaskuntza-prozesua.
 - h) Ikastetxeko jarduera nahiz proiektu guztiak ebalua daitezela sustatzea, Hezkuntza Administrazioaren edo aginte-organoen ekimenez gauzatzen diren ebaluazioetan

laguntzea, eta ebaluazio horien ondorioz beharrezko gerta litezkeen hobekuntza-planak sustatzea.

IV. ATALA. TUTOREAK ETA IKASLE TALDEEN IRAKASLEAK

30. artikulua. Tutoretza eta tutoreak izendatzea

1. Tutore izatea eta ikasleak orientatzea irakasleen berezko funtzioak dira.
2. ANTIGUA-LUBERRI BHIko ikasle talde bakoitzak bere tutorea edo tutoreak izango du.
3. Zuzendariak izendatuko du talde bakoitzeko tutorea. Horrela, ikasketabuaren proposamena kontuan harturik, ikasleei eskola ematen dien irakasleetako bat aukeratuko du, betiere, ikasturtea antolatzeari buruz Hezkuntza Sailburuordearen ebazpenean jaso diren jarraibideekin bat etorritik.
4. Ikasketaburuak tutoreen lana koordinatuko du eta, aldian aldiro, beharrezkoak diren bilerak egingo ditu tutoretzek egoki funtziona dezaten.

31. artikulua. Tutoreen funtzioak

1. Tutoreek ikasturtero beren gain hartuko dituzte ikasturtea antolatzeari buruzko ebazpenean esleitu zaizkien funtzioak eta atazak.

32. artikulua. Talde bateko irakasleen erregimena eta osaera

1. Ikasle talde berari eskolak ematen dizkieten irakasleek talde bat osatuko dute, eta talde hori ikasle taldearen tutoreak koordinatuko du.
2. Ikasle taldearen irakasleak ebaluazioari buruzko araudietan ezarritakoaren arabera bilduko dira. Ikasketaburuak egingo du bilerarako deia, ikasle taldeko tutorearen eskariz.

33. artikulua. Ikasle taldeko irakasleen funtzioak

1. Irakasleen funtzioak, besteak beste, hurrengoak dira:
 - a) Agindutako curriculum-arloak, -gaiak, -moduluak edo -esparruak programatzea eta irakastea.
 - b) Ikasleen ikaskuntza-prozesuaren ebaluazioa eta irakaskuntza-prozesuen ebaluazioa.
 - c) Ikasleen tutoretza, haien ikaskuntzaren zuzendaritza eta orientazioa, eta hezkuntza-prozesuko laguntza, familiekin lankidetzan.
 - d) Ikasleen hezkuntza-orientazioa, orientazio akademikoa eta orientazio profesionala, zerbitzu edo sail espezializatuekin lankidetzan, hala badagokio.
 - e) Ikasleen garapen intelektuala, afektiboa, psikomotorra, soziala eta morala zaintzea.
 - f) Ikastetxeek programatutako jarduera osagarriak sustatzea, antolatzea eta jarduera horietan parte hartzea, ikastetxearen barruan edo kanpoan.
 - g) Ikastetxeko jarduerak errespetuz, tolerantziaz, parte-hartzeaz eta askatasunez garatzen laguntzea, ikasleengan herritartasun demokratikoaren eta bake-kulturaren balioak sustatzeko.
 - h) Familiei aldizka beren seme-alaben ikaskuntza-prozesuari buruzko informazioa ematea, eta prozesu horretan laguntzeko orientabideak ematea.
 - i) Esleitzen zaizkion irakaskuntza, kudeaketa eta zuzendaritza jarduerak koordinatzea.

- j) Ikastetxearen jarduera orokorrean parte hartzea.
 - k) Hezkuntza-administrazioek edo ikastetxeek zehazten dituzten ebaluazio-planetan parte hartzea.
 - l) Irakaskuntza-prozesuak ikertzea, esperimendatzea eta etengabe hobetzea.
 - m) Prestakuntza-jardueretan aktiboki parte hartzea, Hezkuntza Sailak eta ikastetxeko aginte-organoez ezartzen dituzten balditzetan.
 - n) Izaera orokorraz, Hezkuntza Sailak ezartzen dituen arauak edo, ikastetxe bakoitzean, aginte-organoez ezartzen dituztenak betetzea.
2. Irakasleek lankidetzaren eta talde-lanaren printzipiopean beteko dituzte aurreko puntuan adierazitako funtzioak.

V. KAPITULUA. PARTAIDETZA-ORGANO BEREZIAK

I. ATALA. IKASLEEK PARTE HARTZEKO ORGANO BEREZIAK

34. artikulua. Partaidetza-organo bereziak

1. Eskola Kontseiluan hezkuntza-komunitate osoak parte hartzen du. Horrez gain, ikasleek eta ikasleen gurasoek elkarrean eta organo berezien bidez hartu ahal izango dute parte ikastetxearen kudeaketan.

35. artikulua. Ikasleek parte hartzeko organo bereziak

1. ANTIGUA-LUBERRI BHIIn badira ikasleek parte hartzeko bi organo berezi: taldeko ordezkariak, batetik, eta ordezkarien biltzarra, bestetik.
2. Bestelako ordezkariak eta organoak egotea ere posible da: IKT arduradunak, eko-ordezkariak, gelako asanblea...

36. artikulua. Taldeko ordezkariak

1. Ikasturtearen lehenengo hilabetean ikasle talde bakoitzak bere ordezkaria aukeratuko du, zuzeneko eta isilpeko bozketaren bidez. Ordezkari hautetsi hori ikasleen Ordezkarien Batzordeko kide izango da. Ordezkariorde bat ere aukeratuko da. Ordezkariordeak ordezkariaren lekua hartuko du hura kanpoan denean edo gaixo dagoenean. Ordezkariordeak, halaber, laguntza eskainiko dio ordezkariari.
2. Ikasturteko ordezkariak eta ordezkariordeak aukeratzeko deialdia ikasketaburuak egingo du eta berak erabakiko ditu bozketarako arauak. Arauok *Eranskin 3an* jasota daude.
3. Ordezkariak eta ordezkariordeak ezeztatu ahal izango dira, baina horretarako alde zuzenetik tutoreari txosten arrazoitua bidaliko zaio. Kasu horretan, hauteskunde berrietarako deialdia egingo da, hamabost eguneko epean.
4. Ezin izango dira ordezkariak zigortu araudi honen arabera bete beharreko funtzioak bete izanagatik.

37. artikulua. Taldeko ordezkarien funtzioak

1. Hauek dira taldeko ordezkarien funtzioak:
 - a) Ordezkarien Batzordearen edo deitua den beste bileretan parte hartzea.

- b) Jasotako informazioa gelari transmititzea.
- c) Taldearen iradokizunak eta kexak dagokionari helaraztea.
- d) Dagokionaren aurrean gelako ordezkaria izatea.
- e) Ikastetxeko aginte-organismoek, beren eskumenen barruan, esleitzen dioten funtzio oro.

38. artikulua. Ordezkarien Batzordearen eraketa eta jarduera-araudia

1. ANTIGUA-LUBERRI BHIIn ikasleen Ordezkarien Batzordea egongo da. Batzorde hori osatuko dute, batetik, taldeetako ikasleek libreki hautatu dituzten ordezkariak eta, bestetik, ikastetxeko Eskola Kontseiluan ikasleen ordezkari aritzen direnek.
2. Ordezkarien Batzordeak funtzionamendurako bere arauak landuko ditu (*Eranskin 3*). Ikasketaburuak onartu ondoren, arau horiek indarrean sartuko dira, eta arau horiek baztertuko dira legez ezarritako arau baten aurka badoaz, araudi honetako legeen aurka badoaz edo ikasleen eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideen edo betebeharren aurka badoaz.
3. Edonola ere, ikastetxeko ikasleen artean dagoen aniztasuna eta Ordezkarien Batzordearen eraginkortasuna zaindu beharko dira.
4. Zuzendariak Ordezkarien Batzordeari bere bilerak egiteko leku egoki bat utziko dio, baita behar bezala funtzionatzeko behar dituen bitartekoak ere.
5. Ordezkarien Batzordeko kideek, beren funtzioak betetzean, Eskola kontseiluaren bilkuretako aktak kontsulta ditzakete, baita ikastetxeko administrazio-mailako beste edozein agiri ere, kasu batean izan ezik: dokumentazio jakin bat erabili edo hedatzearen ondorioz, pertsonen intimitatearen aurka doanean.

39. artikulua. Ordezkarien Batzordearen funtzioak

1. Hauek dira Ordezkarien Batzordearen funtzioak:
 - a) Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Urteko Plana eta Urteko Memoria lantzeko proposamenak, baita eskola jardunaldia antolatzeakoak ere, zuzendaritza taldeari luzatzea.
 - b) Eskola kontseiluko ikasleen ordezkariari aholkularitza eta laguntza eskaintzea, baita talde edo ikasturte bakoitzak dituen arazoei buruzko informazioa ematea ere.
 - c) Eskola kontseiluko ikasleen ordezkarien aldetik informazioa jasotzea, gai-zerrendari buruz, modu eraginkorrean aztertutako gaiari buruz eta Eskola kontseiluan hartutako akordioei buruz.
 - d) Eskola kontseilurako txostenak egitea, bai ikasleen Ordezkarien Batzordearen berezko ekimenez bai Eskola kontseiluak hala eskatuta ere.
 - e) AJA aldatzeko proposamenak egitea, beren eskumenen barruan.
 - f) Ikasleei Ordezkarien Batzordearen jarduerari buruzko informazioa ematea.
 - g) Ikastetxean jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak garatzeko proposamenak egitea.
 - h) Enpresetan praktikak egiteko hitzarmenei buruzko informazioa ematea, hitzarmenik egonez gero, eta horien jarraipenean parte hartzea.
 - i) Ikasleengan eragin zuzena duen beste edozein jarduera edo erabaki.

II. ATALA. GURASOEN BATZARRA, IKASLEEN GURASO-ELKARTEAK ETA IKASLE ELKARTEAK

40. artikulua. Gurasoen Batzarra

1. ANTIGUA-LUBERRI BHiko Gurasoen Batzarraren bidez, gurasoek ikastetxearen kudeaketan parte har dezakete. Ikasle guztien gurasoek edo tutoreek osatuko dute organo hori.
2. Gurasoen Batzarraren barruan beste organo bat egon daiteke, zuzeneko eta isilpeko botoaren bidez aukeratuko dena; barne-organo horrek Gurasoen Batzarraren bilerak antolatuko ditu eta Batzarrak hartutako erabakiak gauzaten direla gainbegiratuko du. Guraso elkarteak Guraso Batzarraren organo exekutiboan parte hartuko dute.
3. Gurasoen Batzarrak honako funtzio hauek beteko ditu:
 - a) Egokitzat jotzen dituen proposamenak ikastetxeko gainerako organoetara luzatzea, organo horien eskumenekoak diren gaiak buruzkoak. Helarazi diezaietke, beraz, irakaskuntza-jardueren, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa nahiz urteko kudeaketa-programa gauzatzearen balioespena.
 - b) Zuzendaritza taldearekin eta klaustroarekin kontaktuan egotea, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren garapenean ahalik eta lankidetzat handiena lortze aldera.
 - c) Gurasoen ekimena sustatzea, ikastetxearen bizitzan aktiboki parte har dezaten.
 - d) Taldeko organoetan gurasoen ordezkari direnak Gurasoen Batzarraren bilkuretara agertzeko eskatzea, egindako kudeaketari buruzko informazioa eman dezaten.
 - e) Funtzionamendurako bere arauak onestea.
4. Guraso batzarra, gutxienez, ikasturtean behin bilduko da.
5. Batzarrari derrigorrez ondoko hauei buruz informazioa eman eta kontsultatu egin behar zaio:
 - a) Ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren lanketa eta aldakuntza.
 - b) Ikastetxearen urteko plana.
 - c) Hizkuntza eredu aldaketa.
 - d) Ikastetxea eraberritzeko obra garrantzitsuak.

41. artikulua. Ikasleen guraso-elkarteak eta ikasle-elkarteak

1. ANTIGUA-LUBERRI BHik ikasleen guraso-elkarteak aintzatetsiko ditu, haien egoitza izango da eta ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzera lagunduko die. Ikastetxeak, halaber, legalki sortu diren ikasle-elkarteen egoitza izango da eta ikasle-elkarteei ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzera lagunduko die.
2. Zuzendariak zehaztuko du legalki eratu diren elkarteek zer lokal erabiliko dituzten modu iraunkorrean. Zuzendariak, elkarten ordezkariak hala eskaturik, gune komunak erabiltzeko baimena emango die arestian aipatutako elkarteei.
3. Ikastetxeko aginte-organismoek ez dituzte ikasleen gurasoak edota ikastetxeko ikasleak jardutez edo ez-egitez behartuko elkarte eratuetakoa batean izena ematera ezta elkarte eratuetakoa bat diruz laguntzera ere.

42. artikulua. Elkarte legalki eratuaren bidez parte hartzea

1. Ikastetxean eratu diren ikasleen guraso-elkarteek nahiz ikasle-elkarteek ondoko hauek egin ditzakete:

- a) Eskola Kontseiluari hezkuntza-proiektua eta urteko programazio orokorra lantzeko nahiz aldatzeko proposamenak egin.
 - b) Eskola Kontseiluari ikastetxearen martxari buruz egoki deritzon alderdien berri eman.
 - c) Hezkuntza-komunitateko kide guztiei bere jardueren berri eman.
 - d) Eskola Kontseiluan landu diren gaiei buruzko informazioa jaso. Eskola Kontseiluaren gaitzerrenda jasotzea hark bilerak egin aurretik, proposamenak prestatu ahal izateko.
 - e) Eskola Kontseilurako txostenak egin, bai guraso- nahiz ikasle-elkarteen berezko ekimenez bai Eskola Kontseiluak hala eskatuta.
 - f) AJA aldatzeko proposamenak landu.
 - g) Jarduera osagarriak egitea proposatzea.
 - h) Emaitza akademiko orokorren nahiz berorien gain ikastetxeak egiten duen balioespenaren berri izatea.
 - i) Hezkuntza-proiektuaren, curriculum-proiektuen eta proiektu horien aldaketen ale bat jasotzea.
 - j) Ikastetxeak hautatu dituen testuliburuei eta ikasmaterialei buruzko informazioa jasotzea.
 - k) Hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko elkarlana sustatzea.
 - l) Ikastetxeko aretoak erabiltzea, zuzendariak ezarritako baldintzetan.
 - m) Bere sektoreko kideen eta beren seme-alaben defentsa egitea, baldin eta eskubideak zapaldu edo betebeharrak bertan behera utzi direla ulertzen bada.
 - n) Guraso elkarteari dagokionez, gurasoen formazioa eta prestakuntza antolatzea.
 - o) Guraso elkarteari dagokionez, klub eta gisakoak osatzea kirol eta kultur jarduera eta abarretakoen eraginkortasun egokiagorako.
2. Elkarreek Eskola Kontseiluari burutzen dituzten jardueren berri emango diote aldizka.

II. TITULUA .BIZIKIDETZARAKO ARAUAK

I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK

43. artikulua. Bizikidetzaren oinarriak

1. ANTIGUA-LUBERRI BHIren ustez, bizikidetzaren bermatzeko, batetik, hezkuntza komunitate osoak guztion eskubideak errespetatu eta babestu behar ditu ezinbestean, ikasleen eskubideei arreta berezia jarri; eta bestetik, hezkuntza komunitate osoak bere eskubideak eta eginkizunak arduraz bete behar ditu, titulu honetan ezartzen denarekin bat etorri.

44. artikulua. Bizikidetzaren plana

1. ANTIGUA-LUBERRI BHIk bizikidetzaren plana idatziko du, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak xedatzen duenarekin bat. Bizikidetzaren helburu nagusia bizikidetzaren gerta daitezkeen gatazkak prebenitzea da. Gatazkarik gertatuz gero, beroriek nola ebatzi aurreikusiko da. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bitartez, aukerako zenbait bide ezarri ziren hainbat jardura eta neurri aplikatzeko. Hartara, gatazkak ebazteko, aipatu berri dugun Dekretuaren bidez ezarri ziren neurriak aplikatuko dira. Horretarako, beharrezko balitz, bitartekaritza-prozedurak erabili daitezke.
2. Bizikidetzaren plana (eta araudi hau) heziketa tresna bat izango da, jarrera aske eta kritikoak barnerratzeko lagungarri izango dena. Harremanak eta begirunea zaintzeko balioko du ezberdinen arteko errespetua sustatu. Komunitatea egiteko ere balioko du. Komunitateko partaideen arteko giro ona, guztion arteko zaintzaren garrantzia zabalduz, baita ikastetxea berarene ere.

45. artikulua. Eskubideen berehalako babesa

1. Ikasleek Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 6. artikulutik 21. artikulura bitartean jaso diren eskubideak izango dituzte.
 - a) Hezkuntza integrala izateko eskubidea.
 - b) Ikasle adingabeen eskubidea arreta berehala jasotzeko.
 - c) Ikastetxeak babesteko ikasle adingabeek duten eskubidea.
 - d) Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea.
 - e) Eskola- eta lanbide-orientaziorako eskubidea.
 - f) Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonaleko eskubidea.
 - g) Kontzientzia-askatasunerako eskubidea.
 - h) Ikastetxeetan biltzeko eskubidea.
 - i) Adierazpen-askatasunerako eskubidea ikastetxeetan.
 - j) Ikasleek elkartzeko duten eskubidea.
 - k) Parte hartzeko eskubidea.
 - l) Informazioa erabiltzeko eskubidea.
 - m) Aukera-berdintasunerako eskubidea.
 - n) Gizarte-babeserako eskubidea.

2. Irakasleren batek ikusten badu ikasleren baten jokabidea arestian aipaturiko eskubideen kontra doala edo eskubide horiek betetzea galarazten duela, berehala esku hartu beharko du.

46. artikulua. Betebeharrak betetzeko bermea

1. Ikasleek Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 21. artikulutik 27. artikulura bitartean jaso diren betebeharrak bete beharko dituzte.
 - a) Ikasteko betebeharra.
 - b) Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra.
 - c) Bertaratzeko betebeharra.
 - d) Bizikidetza errazteko betebeharra.
 - e) Norberaren kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra.
 - f) Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra.
 - g) Instalazioak errespetatzeko betebeharra.
2. Irakasleren batek ikusi badu ikasleak ez dituela bere betebeharrak bete, haren jokabidea berehala zuzendu beharko du. Horrez gain, irakasleak uste badu ikasleak bere jokabidez hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen eskubideak urratu dituela, haren jokabidea berehala zuzendu beharko du.

II. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK BETETZEKO BERMEA

47. artikulua. Irakasleek ikasleen eskubideak babesten laguntzea

1. ANTIGUA-LUBERRI BHIko irakasle guztiak abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bidez ikasleei aitortu zaizkien eskubideak babesten lagunduko dute. Horretarako, araudi honetan eta aginte-organoen jarraibideetan zehaztutakoari jarraituko diote.

48. artikulua. Segurtasunarekin lotura duten eskubideak zaintzea

1. Tutoreek nahiz gainerako irakasleek hautematen badute ikasleren bat tratu txarrak jasotzen ari dela edo, Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 7.2 eta 7.3 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, haurren bat arriskuan edo babesik gabe dagoela, ikasketaburua edo zuzendaria jakinaren gainean jarriko dute.
2. Irakasleek berdinkideen arteko tratu txarrak prebenitu edo ahalik eta lasterren hauteman behar dituzte. Tratu txarren arrastorik antzeman ez gero, zuzendaritza taldea jakinaren gainean jarriko du berehala, egoki diren protokoloak aplikatu daitezten.
3. Ikasketaburuak zenbait irakasle –begien bistaz ikasle guztiak kontrolatzeko bezainbat– izendatuko ditu ikasleen jarduna jolas-orduan zaindu dezaten. Irakasleek jolas-orduan ikasleen jarduna zaintzea nori dagokion jakin behar dute. Irakasleek bertatik bertara egon behar dute eta uneoro ikasleei begira egon. Zuzendariak jolas-orduan zenbait toki erabiltzea debekatu dezake, irakasleen zainketa zailtzen badute.

49. artikulua. Ondra, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea

1. Ikasleek nahiz hezkuntza-komunitateko gainerako kideek haien ondra, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute. Horrenbestez, ANTIGUA-LUBERRI BHIko aginte-organoek, tutoreek eta irakasle guztiek babestu beharko dute ikasleen nahiz hezkuntza-komunitateko kideen eskubide hori.
2. Ikasgelatik kanpo –hau da, eraikinean edo eskola-barrutian– aipatu berri ditugunak erabiltzea baimentzen bada, egoki izan daitezkeen muga guztiak proposatu daitezke. Batera zein bestera, debekaturik egongo da hezkuntza-komunitateko kideren bati bere baimenik gabe argazkiak ateratzea edo hura filmatzea. Debekatuta egongo da ere hezkuntza-komunitateko kidearen baimenaz atera den argazkia edo egin den grabazioa interesdunaren baimenik gabe erabiltzea.
3. Sakelako telefonoak, musika erreproduzizaileak, entzungailuak, erloju adimenduak, betaurreko adimenduak... ikastetxeko eremu osoan itzalita eta gordeta eduki behar dira. Zuzendaritzako salbuespenezko baimenik ezean, debekatuta geratzen da hauen erabilera. Ikasle bat ikastetxearen barruan honako gailuren bat erabiltzen aurkitzen denean:
 - a) Lehenengo aldian, gailua itzalita jaso eta ikasketaburutzan entregatuko da. Gailua aste horretako ostiralean, klaseak bukatutakoan, bueltatuko zaio. Ostiralean bertan kentzen bazaio hurrengo ostirala arte atxikiko zaio.
 - b) Bigarren aldian, gailua berriro jasoko zaio, eta kasu honetan gurasoek etorriko beharko dute bere bila aurreko epe berean.
4. Batera zein bestera debekatuta dago hezkuntza-komunitateko edozein kideri argazkiak ateratzea edo hura filmatzea eta euskarri informatiko batez irudi horiek zintzilikatu edo zabaltzea.
5. Hezkuntza helburua baldin badute, ikasleen irudiak eta audioak grabatu daitezke. Grabazio hauek ikastetxeko gailuekin egingo dira, ez norberarenarekin. Ikasleen irudiak eta audioak webgunean eta ikastetxeko sare sozialetan publikatzeko baimena eskatuko da. Hala ere, ezin identifikatzeko moduan ager daitezen lehenetsiko da. Grabaketak ezabatzeko eskatuz gero, ezabatu egingo da.
6. Ikastetxe barruan kanpokoek ezingo dituzte irudiak eta audioak grabatu.
7. Ikasleen datu pertsonalak LOPDaren arabera tratatuko dira.

50. artikulua. Biltzeko eskubidea

1. ANTIGUA-LUBERRI BHIko aginte-organoek ziurtatuko dute biltzeko eskubidea –Legeak ikasleei aitortzen diena– modu eraginkorrean gauzatzen dela. Biltzeko eskubidearekin erlazionatutako alderdi guztiak zainduko dituzte. Alde horretatik, biltzeko eskubidea gauzatzea hezkuntza-helburuarekin bat datorrela eta adinez txikikoen babeserako Legeak ezartzen dituen aginduekin bat datorrela bermatuko da. Horretarako, paragrafo hauetan zehazten dena hartuko dute kontuan:
 - a) Taldeak gelan bil daitezke ikasketei buruzko gaiak lantzeko, eskolarik galdu gabe, alde zurretik tutoreari jakinaraziz. Hala badagokio, tutorea bileran izango da. Horrez gain, hilean behin eskola-ordutan bil daitezke, ordubetez gehienez ere. Horretarako, tutoreari gai-zerrenda jakinarazi behar diote alde zurretik. Bilera horietan taldetik

kanpoko ikaslerik ezin izango da egon zuzendariaren baimenik gabe. Tutorea ez badago, bilera horien buru eta moderatzaile taldeko ikasleen ordezkaria izango da.

- b) Ordezkarien Batzordeak 38. artikuluan ezarritakoa beteko du.
- c) Ordezkarien Batzordeak, egoki jotzen duenean, ikasle ordezkatuari kontsulta egitea erabaki dezake. Horretarako, Ordezkarien Batzordeak ikasketaburuari baimena eskatuko dio, eta horrek, gai-zerrenda irakurri ondoren eta bertako gaiak Ordezkarien Batzordearen eskumenekin duten egokitzapen-mailaren arabera, baimena emango du ala ez du emango. Horrez gain, aurreko bileretan gai-zerrenda errespetatu ez bada, baimena ukatu dezake. Ikasketaburuaren erabakiaren aurka erreklamazioa aurkez daiteke zuzendariaren aurrean.
- d) Bileren deialdia ikasle guztiei jakinaraziko zaie ikasleen ordezkarien bitartez, bileraren aurreko egunean. Gai-zerrendaren berri emango zaie ere. Bileretara joatea ez da derrigorrezko izango.
- e) Ikasketaburuak, zuzendariaren agintepean, bilera non eta noiz egin erabakiko du. Hasiera batean eskola-ordutegitik kanpo egingo da. Horretarako, ikasketaburuak eskolen ordutegia alda dezake, eskolen iraupena murriztu gabe.
- f) Hala ere, Eskola Kontseilua osatzen duten hiru sektoreek –ikasleek, gurasoek eta irakasleek–, gehiengo erlatiboaren bidez onesten badute, ikasketaburuak eskolen iraupena murriztuko du bilerak ordubete iraun dezan. Horretarako bileran aztertuko diren gai kopurua eta gaien izaera kontuan hartuko dira.
- g) Kontsulta gelaz gela ere egin ahal izango da.
- h) Ikasle taldeak biltzeko eskubidea izango dute. Horretarako gutxienez bi ikaslek ikasketaburuari eskaera egin beharko diote (*Eranskin 4*) bileraren helburuak zehaztuz. Bilerak jolasgaraian edo arratsaldean egin beharko dira, klase orduetatik kanpo. Kanpoko norbaitek parte hartu nahi badu, zuzendaritzaren baimena beharko da.

51. artikulua. Taldeak eskoletara ez agertzeari buruzko arauak

1. DBHko hirugarren mailatik gorako ikasleek grebak edo geldialdiak egiteko eskubidea izango dute.
2. Greba edo geldialdia egiteko proposamena egin dezakete:
 - a) Ordezkarien Batzordeak.
 - b) DBHko hirugarren mailatik gorako ikasleen gutxienez %5ak.
 - c) Elkarte baten izenean, ikastetxeko bi ikaslek.
3. Deialdia ikastetxeko zuzendaritzari idatziz (*Eranskin 5*) helaraziko zaio. Bertan helburuak, eguna eta orduak eta deialdiari buruzko informazioa agertuko dira. Ikasleak informatzeko dokumentua atxikiko da ere. Deialdia bost lanegun lehenago egingo da gutxienez. Ez ohiko gertakizun baten aurrean, epea betetzea posible ez balitz, Zuzendaritzak erabakiko luke baimena eman ala ukatu.
4. Zuzendaritzak deialdia bertan behera utz dezake ondoko alderdiren bat modu argian betetzen ez bada:
 - a) Proposamenaren arrazoiak zerikusi zuzena duenean ikastetxearen jardunarekin.

- b) Proposamenaren arrazoiak ikastetxearen jardunarekin zerikusi zuzenean ez duenean, soilik proposamen hori era zabalean egiten den kasuetan (inguruko ikastetxe guztietan deituta daudenetan, ikasleen elkarte orokorrak deituta direnean, gizartearen beste esparruetan era zabalean deituta direnean...).
- 5. Zuzendaritzak Ordezkarien Batzordea deituko du atsedenaldi batean. Deialdia egiten dutenek deialdiaren nondik norakoak azalduko dituzte.
- 6. Deialdiari buruzko informazioa modu ezberdinetan helarazi ahalko da:
 - a) Klase orduko lehenengo edo azkeneko minutuak erabiliz, ordezkariak gelan azalduta, horretarako deitzaileek eskuragarri jarritako dokumentua erabili ahalko da.
 - b) Jolasgarai batean antolatutako asanblada batean deitzaileek azalduta.
- 7. Bozketa, ahal dela aurreko egunean egingo da eta bi modutan egin ahalko da:
 - a) Gelan bertan: azalpenak eta gero.
 - b) Jolasgaraian: botazioari jolas-ordua hasi bezain laster ekingo zaio; ikasturte bakoitzak mahai bat izango du eta ikasketaburuak zainduko du, edo haren kargua eskuordeturik hartu dueneko irakasleak. Mahai bakoitzean gutxienez talde bakoitzeko bi ordezkari izango dira: batek, NANen bitartez edo ikastetxeko txartelaren bitartez ikasleen nortasuna egiaztatuko du eta dagokion ikasle taldearen zerrendan sartu; eta, bestek, ikasleen boto-txartela hartuko du.
- 8. Bozketa isilpekoa izango da eta ondoko aukerak egongo dira:
 - a) Bai.
 - b) Ez.
 - c) Zuriz.
 - d) Beste edozein baliogabetzat hartuko da.
- 9. Deialditik desbinkulatu nahi dutenek, bozketa garaian bozketako mahaian adierazi beharko dute. Desbinkulatuek klaseak normaltasunez jasoko dituzte.
- 10. Bozketa bukatzerakoan hautetsontzia eta akta zuzendaritzara eramango dira.
- 11. Bozketa amaitu ondoren, mahai bakoitzean botoak zenbatuko dira. Emandako botoen batura, boto baliogabeak eta zuriak barne, ikastetxeko ikasle kopuruaren erdia gehi bateko *quorumer*a iristen ez bada, botazioak ez du baliorik izango, eta ezin izango da deialdi berdinerako beste botaziorik egin. Beraz, deialdia besterik gabe baztertuko da.
- 12. Quorum nahikoaz proposamena onartuko da, baiezkoak ezezkoak baino gehiago badira.
- 13. Ikasle, irakasle eta familiei emaitzaren berri emango zaie.
- 14. DBH3 eta DBH4ko ikasleek deialdiarekin bat egin ahal izateko, deialdiaren egunean bertan, goizeko 8:00etan, guraso edo tutore legalen baimen idatzia eman beharko diote une horretako irakasleari. Deialdia egun osokoa baldin bada, aurreko lanegunean ekarri beharko dute.
- 15. Bozketan parte hartzen ez dutenek (adibidez, gaixo daudenak) bozketaren emaitza onartuko dute. Hala ere, desbinkulatzeko aukera izango dute deialdia hasi baino lehen zuzendaritzari horrela adierazten badiote.
- 16. Deialdi onetsiari jarraiki eskoletara ez agertzea ez da jokabide okertzat hartuko eta ez da egintza hori zuzentzeko neurririk ezarriko. Hala ere, hutsegiteak jaso egingo dira.
- 17. Ikastetxeak eskolak emango ditu, agertzen ez den ikasle kopurua edozein izanda ere. Jangela eta garraio zerbitzuak ere eskainiko dira.

18. Greba edo geldialdi batean parte hartzeak ez du proba baten edo jarduera berezi baten (irteera, hitzaldi...) errepikapena eskatzeko eskubiderik ematen.

52. artikulua. Idatzizko adierazpen askatasunaren eskubidea betetzea

1. Apirilaren 19ko 201/2008 Dekretuaren 14. artikulua ikasleei adierazpen askatasunaren eskubidea aitortzen die.
2. ANTIGUA-LUBERRI BHIk ondoko araudia ezartzen du idatzizko adierazpenari dagokionez:
 - a) Institutuko kide guztiek, haiek egoki irizten dioten informazioa zabaldu ahal izango dute ikastetxean.
 - b) Kartelak ikastetxeko kideek bakarrik jarriko dituzte. Kanpoko kideek zuzendaritzaren baimenarekin jarri ahalko dituzte.
 - c) Kartelak kortxoetan jarriko dira. Kortxoetan lekurik ez badago, kortxoaren inguruan jarri ahalko dira.
 - d) Gelen barruan eskolako jardueri buruzko informazioa bakarrik jar daiteke.
 - e) Erakundeekiko eta hezkuntza-komunitateko kideenganako errespetua kontuan hartu beharko da.
 - f) Testuak euskaraz egongo dira, asko jota elebitan.
 - g) Kartelak jartzen duenari dagokio berauek kentzea.
 - h) Pankartak kanpoko ateen ondoko hesietan jarri ahal izango dira.
3. Aipatu arauak errespetatzen ez dituzten informazioak kendu egingo dira, zuzendariaren edo ikasketaburuaren aginduz.

III. KAPITULUA. BETEBEHARRAK BETETZEKO BERMEAK

53. artikulua. Printzipio orokorrak

1. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak zenbait betebeharrak ezarri dizkie ikasleei. Ikasleek betebeharrak horiek ez betetzea, gutxienez, jokabide okertzat hartuko da beti. Hutsegite hori, halaber, bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide edo bizikidetzaren kontrako jokabide izan daiteke, baldin eta haren bidez hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak betetzea galarazten bazaie, edota hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak zuzenean urratzen badira.
2. Betebeharrak horiek betetzen ez direla ikusten duen irakasleak esku hartu beharko du derrigor. Horrenbestez, bizikidetzarekin bat ez datorren jokabidea zuzendu beharko du, betiere, arestian aipaturiko Dekretuan nahiz araudi honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

54. artikulua. Zuzendu beharreko jokabideak

1. Ahalik eta lasterren zuzendu behar dira 201/2008 Dekretuak okertzat jo dituen jokabide guztiak, baita bizikidetzaren kontrakoak edo bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkietenak ere. Ahal den heinean, neurri zuzentzaileek zuzendu beharreko jokabidearekin lotura izan behar dute, hainbestekoa non zuzendu beharreko jokabidearen ondorioztat har daitezkeen.

2. Neurri zuzentzaileek helburu hezigarria izango dute, batez ere, hala zuzendu behar den jokabidea egin duen ikaslearentzat, nola gainerako ikasleentzat. Neurri zuzentzaileak hezkuntza-jardunaren baitan beteko dira, hainbat arlotako oinarrizko gaitasunak lortzen laguntzeko, hala nola gizarte- eta herritartasun-arlokoak nahiz autonomia eta ekimen pertsonalaren arlokoak.
3. Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunaren eta gutxieneko esku-hartzearen printzipioak kontuan izanda ezarriko dira, eta adiskidetzaren eta kalte-ordainaren bidez irtenbidea lortzeari emango zaio lehentasuna, betiere ahal den hezkuntza-eraginkortasunik handiena lortzearren.
4. Ikastetxeak bizikidetzaren arazoak 201/2008 dekretuko IV. kapituluaren araututako prozedurak erabili gabe konpontzeko ahalegina egingo du, eta ahal dela, kapitulu horretan adierazten diren bide alternatiboak erabilita.

55. artikulua. Jokabide desegokiak

1. Jokabide desegokitzat arestian aipaturiko dekretuaren 30. artikuluan aipatu direnak hartuko dira.
2. Arestian aipaturiko dekretuan jaso denaren arabera, jokabide desegokia antzeman duen irakasleak zuzenduko du 201/2008 dekretuko 34. artikuluko neurriak ezarriz.
3. Ikasketaburuak ezarriko du jarraitu beharreko prozedura (*Eranskin 6*). Prozedura hori indarreko arauekin bat etorriko da beti. Era berean, jokabidea zuzentzeko ahozko ohartarazpena baino zerbait gehiago aplikatu behar bada, halaxe jakinarazi beharko zaio ikaslearen tutoreari.
4. Irakasleak bere iritzia emateko aukera ikasketaburuak ezarritako prozeduran jaso egongo da.
5. Jokabide desegokiak hiruhileko akademiko berean metatuko dira soilik.
6. Ikasle batek arrazoi antzekoengatik hiru jokabide desegoki metatzen baditu, bere jarrerari buruz hausnartzeko arratsalde bat etorriko da. Kasuaren arabera ikasketaburuak beste neurri bat erabaki dezake.

56. artikulua. Bizikidetzaren kontrako jokabideak

1. Bizikidetzaren aurkako jokabideak Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 31. artikuluan aipatzen direnak dira.
2. Bizikidetzaren aurkako jokabiderik hautematen duen irakasleak, lehenik, aurkako jokabidea izan duen ikaslea ahoz ohartaraziko du. Ondoren, ikasketaburuarengana edo haren ordezkorengana joatea aginduko dio. Azkenik, ikasketaburuak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari (*Eranskin 6*) jarraiki, gertakarien eta jokabide okerra zuzentzeko berehala egin duenaren berri emango du.

57. artikulua. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak

1. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 32. artikuluan aipatzen direnak dira.
2. Bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidearen lekuko izan den irakasleak, lehenik, ahoz ohartaraziko du bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea izan duen ikaslea. Ondoren, ikasketaburuarengana edo haren ordezkorengana joatea aginduko dio. Azkenik,

ikasketaburuak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari (*Eranskin 6*) jarraiki, gertakarien nahiz jokabide okerra zuzentzeko berehala egin duenaren berri emango du.

58. artikulua. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko prozedura

1. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 35. eta 36. artikuluetan aurreikusi dena aplikatuko da. Hala ere, lehentasuna emango zaio, gatazka ebazteko 201/2008 Dekretuko III. kapituluan aurreikusi diren aukerako bideei.

III. TITULUA. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBOA

59. artikulua. Printzipio orokorrak

1. 76/2023 dekretuan, 77/2023 dekretuan eta 2024ko urtarrilaren 31ko Ebaluazio Aginduan ezarritakoa betetze aldera, eta ikasleek beren errendimendu akademikoa objektiboki ebaluatua izatera duten eskubidea bermatze aldera, titulu honetan ezarri den berme-sistema ezarriko da. Sistema horrek ondoko printzipio hauek ditu oinarri: publikotasuna, informazioa eta gardentasuna. Aipatu berri dugun sistemaren bidez, bidenabar, ikasleek azken notaren aurrean erreklamazioak egiteko aukera izango dute.

60. artikulua. Publikotasuna

1. Ikasketaburuak bermatu beharko du ikasleek nahiz legezko haien ordezkariak Ikastetxeko Curriculum Proiektua (programazioak) eskuratzeko duten eskubidea. Ikasleen eta beren ordezkarien eskura egongo den Proiektuan ondoko hauek ageri behar dira: arlo edo irakasgai bakoitzaren funtsezko konpetentziak, konpetentzia espezifikokoak, ebaluazio-irizpideak, oinarrizko jakintzak, ikas-egoerak eta jarraituko den metodologia.
2. Ikasketaburuak, halaber, bermatu beharko du didaktika-departamentuek eta irakasleek publiko egiten dituztela, ebaluazio-prozedura nahiz irizpide aplikagarriak eta, azkenik, berreskuratzeak egiteko nahiz laguntza eskaintzeko aurrekusi diren prozedurak, baita aniztasunari erantzutekoak ere.
3. Ikasketaburuak ziurtatuko du informazio hori guztia ikasleei eta ikasle adingabeen gurasoei edota haien legezko ordezkariari heldzen zaiela.

61. artikulua. Ikasleentzako eta gurasoentzako informazioa

1. Ikasturtearen hasieran irakasleek informazioa emango diete ikasleei, bai eta guraso edo legezko tutoreei ere ikasle adingabeen kasuan, arlo, jakintzagai eta eremu guztietako – aurreko mailetan gainditu gabeko arlo, jakintzagai eta eremuak barne– funtsezko konpetentziei, konpetentzia espezifikoei, oinarrizko jakintzei eta ebaluatzeko eta kalifikatzeko metodologiari eta irizpideei buruz, bai eta kalifikazio positiboa lortzeko eskatzen diren gutxieneko betekizunei buruz ere.
2. Ikasturtean hiru aldiz, gutxienez, tutoreak idatziz informazioa emango dio ikasleari, bai eta gurasoei edo legezko tutoreei ere ikasle adingabeen kasuan, ikaslearen errendimenduz eta haren hezkuntza-prozesuaren bilakaeraz.
3. Gutxienez, banakako bi elkarrizketa presentzial egin behar dira, bat ikasturtearen hasieran eta beste bat bukaeran, eta talde-bilera bat ikasturtearen hasieran. Hala ere, beharrezko eta egokitzat jotzen den guztietan egin ahal izango dira bilerak eta elkarrizketak. Bigarren ebaluazioaren ondoren gurasoekin elkarrizketa bat ere egin behar da.
4. Ikasturtearen amaieran, azken ebaluazioaren emaitzak idatziz jakinaraziko zaizkie ikasleei eta, ikasle adingabeen kasuan guraso edo legezko tutoreei.

5. Hurrengo mailara ez igarotzeko erabakia hartu aurretik, tutorea ikaslearen gurasoekin edo legezko tutoreekin bilduko da, ikaslea adingabea bada, eta azalduko die zer-nolako zailtasunak dituen ikasle horrek, bai eta zailtasun horiek gainditzeko zer neurri osagarri proposatzen diren ere .
6. Ikasleek eta, ikasle adingabeen kasuan, gurasoek edo legezko tutoreek eskubidea izango dute ebaluazioari eta mailaz igarotzeari buruzko erabakiak ezagutzeko.

62. artikulua. Zuzendutako lanak, probak eta ariketak berrikustea

1. Ikasleek eta, hala egokituz gero, gurasoek edota legezko ordezkariak ikasleen errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak ikusteko aukera izango dute. Behin ariketak zuzenduta eta nota jarrita, aipatu dokumentuen kopia edukitzeko eskubidea izango dute.
2. Prozedura *Eranskin 7an* jasotzen da.
3. Zuzenketa amaitutzat jotzeko ez da nahikoa izango kalifikazio kualitatiboa edo kuantitatiboa agertzea; horrez gain, egindako akatsak edo hutsegiteak edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua adieraziko da.

63. artikulua. Ariketa zehatzei jarritako kalifikazioen aurrean berrikuspena eskatzea

1. Ikasleek edo legezko beren ordezkariak, kalifikazioak jaso eta bi eskola-egun igaro aurretik, ahoz edo idatziz aurkez ditzakete alegazioak eta egindako lanak edo probak berrikusteko eskatu ere. Alegazioak edo eskabideak irakasleari aurkeztuko zaizkio. Irakasleak, egoki baderitzo, didaktika-departamentuari aholkua eska diezaioke auzia ebazteko. Horretarako, kontuan izango ditu curriculum ofiziala eta ikasgaiko programazioa.
2. Prozedura *Eranskin 7an* jasotzen da.

64. artikulua. Ebaluazio partzialen aurrean berrikuspena egitea

1. Ikasleek edo legezko beren ordezkariak, idatziz, tutorearen bitartez ebaluazio-aldi bakoitzari dagozkion erreklamazioak egin ditzakete. Tutoreak erreklamazioa dagokion didaktika-departamentuari bideratuko dio.
2. Didaktika-departamentuak, proposatutako proba programazioarekin bat ote datorren egiaztatuko du, baita departamentuan erabakitako irizpideak zuzen ezarri ote diren ere, eta berrikuspena eskatu duen ikasleari idatziz erantzungo dio.
3. Ebaluazio partzialesan ezin izango da kalifikazioaren aurkako erreklamaziorik egin, nahiz eta irakasleak kalifikazioari eutsi departamentuaren irizpidearen aurka. Hala ere, irizpide hori kontuan hartuko da azken ebaluazioaren aurkako erreklamaziorik eginez gero erabakia hartzeko.
4. Prozedura *Eranskin 7an* jasotzen da.

65. artikulua. Kalifikazioak justifikatzen dituzten agiriak gordetzea

1. Ikasturteko edozein unetan probak, lanak eta ariketak aztertu ahal izateko, irakasleek ikastetxean izango dituzte agiri guztiak, eskola-garai osoan eta, gutxienez, ikasturteko

azken ebaluazioa egin ondoren erreklamazioak egiteko dagoen epea amaitu bitartean. Proba guztietan idatziz azaldu beharko dira ikasleen ikaskuntzari buruzko ebidentziak.

2. Epe hori amaitu ondoren, agiriak suntsituko dira edo ikasleei eman, beti ere erreklamazio baten ondoren erabakia hartzeko beharrezkoak ez badira. Ondorio horietarako, kontuan hartu beharko dira bai erreklamazioan aipatu diren ariketak, baita ikasleak edo erreklamatzailerak aldarrikatzen duen kalifikazio bera izan duten ikasleen ariketak ere.
3. Edonola ere, erreklamazio bati buruzko erabakia hartzeko kontuan hartu beharreko ariketak edo agiriak gorde egin beharko dira, horiei buruzko erabaki administratiborik edo ekintza judizialik egin daitekeen kasuetan, irmoki ebatzi arte gordeko dira.

66. artikulua. Azken kalifikazioei, mailaz igarotzeari edo titulua eskuratzeari buruzko erreklamazioa

1. Ikasleek 48 orduko epea izango dute erreklamazioak egiteko, kalifikazioak formalki eman diren unetik zenbatzen hasita. Erreklamazioa egiteko, zuzendariari zuzendutako idatzi bat aurkeztu beharko dute. Idatzi horretan, ikasleak ondoko hauek zehaztu behar ditu argi eta garbi: irakasleak jarri dion eta bere iritziz zuzena ez den kalifikazioa; zilegi litzatekeen kalifikazioa; eta ikasleak erreklamazioa egiteko dituen arrazoiak.

Ikasleak, halaber, erantsi ahal izango ditu ariketa zehatzen edo ebaluazio partzialen kalifikazioen aurrean egin ziren eta bere garaian aldeko ebazpena izan ez zuten alegazioak edo erreklamazioak, betiere, ariketa zehatz edo ebaluazio partzial horiek azken ebaluazioko emaitzaren gain eragina izan badute.

2. Ikasketaburuak dagokion didaktika-departamentuari aurkeztuko dio erreklamazioa. Didaktika-departamentuak erreklamazioa aztertuko du. Hartara, proba proposatuak ikasgaiaren programazio onartuarekin bat datozen erabakiko du, baita ebaluazio-irizpide hitzartuak zuzen aplikatu diren ere. Didaktika-departamentuak erabakiko du irakasleak jarritako kalifikazioarekin ados dagoen ala ez. Erabaki hori hartzeko, kontuan hartu beharko ditu ebaluazio partzialetan egindako erreklamazioei buruz igorri diren txostenak.

Kontuan izango du erreklamatzaileraren antzerako egoeran dauden ikasleei irakasleak zer kalifikazio jarri dien.

3. Didaktika-departamentuak bi eguneko epean hartu beharko du erabakia, erreklamazioa idatziz egiten den egunetik zenbatzen hasita.
4. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 119.3 artikulua araberak, kalifikazioak berrikusteko eta erreklamatzeko eskubidea ezin da ebatzi hasieran lortutakoa baino kalifikazio txikiagoarekin.
5. Azken kalifikazioari izan beharrean erreklamazioa mailaz igarotzeari edo titulua eskuratzeari buruzkoa bada, txostena Didaktika-departamentuari eskatu beharrean dagokion Ebaluazio bilerari eskatuko zaio.

67. artikulua. Hartutako erabakiaren ondorioak

1. Didaktika-departamentuak edo Ebaluazio bilerak bere erabakiaren berri emango dio zuzendariari. Zuzendariak egun bateko epean erreklamazioa ebatziko du. Azken horrek interesdunari helaraziko dio erabakia.

2. Ikaslearen erreklamazioa balioesten bada Zuzendariak, horrenbestez, agiri akademikoan dagokion zuzenketa egingo du.
3. Erreklamazioa onartu ez eta ikaslea, oraindik ere, erabakiarekin konforme ez badago, erreklamazio-idatzia jarri dezake zuzendariaren aurrean ebazpena jakinarazi eta bi eguneko epean. Zuzendariak, kasu horretan, Hezkuntza-administrazioari helaraziko dio ikaslearen erreklamazioa, eta Hezkuntza-administrazioak erabaki bat hartu beharko du, Ebaluazio Aginduak 21. artikuluan adierazten duen moduan.